

A1101 72

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Altzako Barbotegi



Barbotegi etxea. Altzako San Marzial elizaren ondoan.


Altzako plazan San Marzial elizaren iparraldeko hormaren ondoan etxe txiki zahar bat dago. Etxea oso ongi zainduta dago: txuriz margotua, hareharritziko harlanduak ertzetan eta lau ureko teilatua. Esan dezakegu zalantzarik gabe, gaur Altzako plazan dagoen etxerik txikiena dela baina baita politena ere. Etxe hau ez da inoiz izan baserri edo kale-etxe arrunt bat, beti Altzako

herriko medikuaren etxea baizik. Gaur oraindik altzatar batzuek *Barbotegi* izenaz gain *Mediku-etxea* edo «medikuen etxia» deitzen dute baita ere. 1862. urtean Donostiako udalak (garai haietan Donostiari zegokion herria zen Alzta, urte batzuk beranduago hiritik independizatu arte) egin zuen hiriko eta Udal barrutiko etxe erregistroan, «Casa del Cirujano» izenarekin aipatzen da. Beraz,

Barbotegi «barbera» edo «barberuan» etxea da. Izen hori baita euskaldunek ematen dioguna sendagile, praktikante edo antzeko lana egiten duen pertsonari. Ez pentsa izen berezia denik etxe bat izendatzeko. Besteak beste badira *Barbotegi* baserria Ulian (Ategorrietan) eta Barberoetxe Igeldon (Arrokaldean).

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JOSU TELLABIDE



La Casa
del Café

- Juan Iriando S.A. -
DONOSTIA

